ASTIGARRAGA

# Sagar dastaketa prestatu da gaurko Roxario jatetxean

Igandean tolaretako lanen hasiera ospatzeko Sagar Uztaren edizio berria antolatu du Sagardoetxeak

**23.09.11 - 02:25 -**

Sagar Uztak hamaikagarren edizioa beteko du aurten eta Sagardoetxeak sagarra eta sagardoaren inguruko kultura Astigarragako kaleetan zehar zabalduko du tolaretako lanen hasiera ospatzeko. Txiki nahiz helduen-tzako prestaturiko jardunaldiekin, ekitaldi nagusiak igandean izango dira.

Aurtengoan Sagar Uztak honako berrikuntzak dakartza, alde batetik, Euskal Herriko sagarren kata gidatua, sagarrekin egindako produktuak ere dastatzeko aukera izango delarik. Bestetik, I. Sagar Tarta Lehiaketa izango da eta azkenik, 'Ermañamendiko tolareetan zeharko ibilbide tematikoa' proiektu turistiko-kulturala aurkeztuko da.

Gainera, gaur Sagartzea Elkarteko teknikariak eta Xabi Kamio enologoak, bertako sagar barietate ezberdinen kata gidatua egingo dute Astigarragako Roxario Jatetxean. Jarraian, Astigarragako hostalariek eskainitako eta sagarrekin egindako produktu ezberdinak dastatzeko aukera egongo da.

**Kata gidatua**

Euskal Herriko, batez ere, Gipuzkoako eta Iparraldeko sagar barietateen ezaugarri organoleptikoak ezagutzeko helburuz, Gabriel Durruty eta Xabi Kamio adituek apez sagarra, gordin txuria eta udare sagarra, sagarren kata gidatua egingo dute, beste sagar mota ba-tzuen artean.

Era berean, sagar kata amaitu ostean, Astigarragako ostalariek eskainitako eta sagarrekin egindako produktu ezberdinak dastatzeko aukera izango da, bigarren urtez jarraian Sagar Uzta jaira batzen direlarik bertako sagarrekin eginiko elaborazioak eskainiz.

**TAGS RELACIONADOS**

sagar, dastaketa, prestatu, gaurko, roxario, jatetxean

**Para poder comentar debes estar registrado**

**Añadir comentario**

Iniciar sesión con Regístrate

Por favor espere…

La actualización en tiempo real está **pausada**. (Continuar)

**Mostrando 0 comentarios**

Ordenar por: los más recientes primero

Suscríbete por e-mail RSS

**ANUNCIOS GOOGLE**

Hotel Punta Monpas
Para familias, la playa y surf Cerca del centro, del Kursal
www.hotelpuntamonpas.com

Trasteros San Sebastian
Alquiler Trasteros Y Guardamuebles Vitoria - Bilbao - San Sebastian
www.TKBselfStorage.es/SanSebastian

Cine a 2€ en Donosti
Entradas de cine por solo 2€. Aprovecha esta oferta especial
www.colectivia.com/Cine_barato

Acupuntura Fertilidad
Pais Vasco - FIV, IIU, SOPQ, FOP Fitoterapia - 15 años experiencia
www.acupunturagerminal.com

Powered by SARENET

diariovasco.com

© Copyright DIARIOVASCO.COM DIGITAL VASCA, S.L.U.
Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 1.786, Folio 141, Sección 8ª, Hoja SS-16552, Inscripción 1ª C.I.F.: B20677878
Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018
Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com
Copyright © Digital Vasca S.L. , San Sebastián. , 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS: